

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Lizitazioa, prozedura irekiaren bidez, Pablo Neruda Egoitzan zerbitzu-kontratu baterako, Alzheimer gaitza edota beste demenzia mota batzuk dituzten adinekoei zuzendua

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 142. artikulua eta hurrengoek xedatutakoari jarraiki, 2018ko martxoaren 7ko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Administrazio Kontseiluko erabakiaren bidez onartutako kontratazio prozeduraren lizitazio iragarki hau argitaratuko da.

1. Erakunde esleitzaila:

a) Erakundea: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa.

c) Dokumentazioa eta argibideak lortzea:

1) Mendetasuna: Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa.

2) Helbidea: Alaba Jeneralaren kalea, 10-4.solairua, 4.bulegua.

3) Herria eta posta-kodea: Vitoria-Gasteiz, 01005.

4) Telefonoa: 945151015 edo 945151043.

5) Telefaxa: 945139653.

6) Helbide elektronikoa: ifbscontratacion@araba.eus.

7) Kontratatzailearen perfilaren Internet helbidea: www.araba.eus.

8) Agiriak eta argibidea lortzeko azken eguna: eskaintzak jasotzeko ezarritako muga-eguna baino 6 egun lehenago.

d) Espediente zenbakia: 10/18.

2. Kontratuaren xedea:

a) Mota: zerbitzuak.

b) Deskribapena: egoitza arreta ematea Alzheimer gaitza edota beste demenzia mota batzuk dituzten adinekoei.

c) Loteak eta lote kopurua/unitate kopurua: ez.

d) Entregatzeko lekua eta/edo prestazioa: Vitoria-Gasteiz.

e) Burutu eta /edo entregatzeko epea: 3 urte.

f) Luzapena onartzea: Kontratuak luzapen bakarra eduki ahal izango du, hiru urteko aldia edo motzagoakoa, eta luzapen guztiak batera ezingo dira izan sei (6) urte baino luzeagoak.

g) Hitzarmen esparrua ezartzea: ez dagokio.

h) Eskurapen-sistema dinamikoa: ez dagokio.

i) CPV (nomenklaturaren kodifikazioa): 85.311000-2 Gizarte laguntza zerbitzua bizitokiarekin.

3. Izapideak eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Enkante elektronikoa: ez.

Esleipeneko irizpideak: ondoren era laburtuan zerrendatzen dira; idazketa osoa administrazio-klausula zehatzen agirian ikusi.

1) Eskaintako preziorik onena (gehienez 47 puntu).

2) Hobekuntzak (gehienez 8 puntu).

3) Proiektu teknikoa (gehienez 45 puntu).

4. Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa: 5.685.335,60 euro.

5. Kontratuaren aurrekontua: 2.365.099,60 euro, ehuneko 4ko BEZa kontratuaren iraupenaren 3 urteetarako.

6. Eskatzen diren bermeak:

Behin-behinekoa: ez da behar.

Behin betikoa: Ehuneko 5a lizitazioaren zenbatekoagatik.

7. Kontratataren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena: ez dagokio.

b) Ekonomia, finantza, teknika edo lanbide arloko kaudimena: administrazio-klausula zehatzen agiria ikusi.

c) Beste berariazko betekizun batzuk: administrazio-klausula zehatzen agiria ikusi.

d) Gordetako kontratuak: ez.

8. Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea:

a) Aurkezteko azken eguna eta ordua: 2018ko apirilaren 16a, berrogei (40) egun natural Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik iragarkia. Edonola ere, epearen azken eguna egun-baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

b) Aurkezpena egiteko modua: administrazio-klausula zehatzen agiria ikusi.

c) Aurkezteko lekua:

1. Mendetasuna: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Erregistroa, Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa.

2. Helbidea: Alaba Jeneralaren kalea, 10-4.solairua, 4.bulegua.

3. Herria eta posta-kodea: Vitoria-Gasteiz, 01005.

4. Helbide elektronikoa: ifbscontratacion@araba.eus.

d) Eskaintzak aurkezteko gonbita egin nahi zaien enpresen kopurua: ez dagokio.

e) Aldaerak: ez dagokio.

f) Lizitatzaillea eskaintza mantentzera behartuta dagoen epea: bi hilabete eskaintzak ireki direnetik.

9. Eskaintzak irekitzea:

a) Mendetasuna: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

b) Zuzendaritza: Alaba Jeneralaren kalea, 10-5.solairua, 3.bulegua.

c) Herria eta posta-kodea: Vitoria-Gasteiz, 01005.

d) Eguna eta ordua:

– C gutunazalaren irekitzea proposamenei harrera egiteko ezarritako azken egunaren 3.egun baliodunean, (larunbatak baliogabeak), eguerdiko 12:00etan egingo da.

– A gutunazalaren irekiera interesdunei jakinaraziko zaien lekuan, data eta orduan izango da; hurrengo atalean ezarritako formulen bidez ebalua ezinak diren irizpideen balorazio txostena egin ostean.

10. Publizitate gastuak: esleipendunak ordaindu beharko ditu.

11. Iragarkia Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialera bidali den eguna: 2018ko martxoaren 7a.

12. Bestelako argibideak: administrazio-klausula zehatzen agiria ikusi. Bereziki, kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak: ikus ezaugarrien taulako Y) idatz-zatia, eta "Oharrak" administrazio-klausula zehatzen agirikoa.

13. Errekurtso berezia: Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango da, lizitazio iragarkiaren kontra kontratazio-arloko errekurtso berezia, lizitazioa araupetzen duten agirien eta zerbitzu-ematearen ezaugarriak ezartzen dituztenen Arabako Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboan, pleguak eta kontratu agiriak hurrengo hamabost egun balioduneko epean jaso badira edo lizitatzaileren esku jartzen badira, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren arabera, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duena, edo bestela bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko auzi errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duena. Kontratazio arloko errekurtso berezia jartzeko, aurretiaz adierazi beharko da kontratazio organora zuzendutako idatziaren bidez, errekurtsoa aurkezteko epe berean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

Zuzendari-kudeatzailea

JOSÉ LUIS ALONSO QUILCHANO